

Bergaran, 2023ko urtarrilaren 26an

## BILDURIK

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako Udalaren izenean (egoitza: Bergarako San Martin plaza, z/g; IFK zenbakia: P2007900J).

Beste aldetik, M<sup>a</sup> Carmen Muela Aparicio andrea, 15393604A NAN zenbakia duena, "KatuZo Bergara" elkarteko lehendakaria, elkartearen izenean (egoitza soziala Bergaran du, Roman Oiarzabal 4, Behean; IFZ zenbakia: G09621038).

M<sup>a</sup> Carmen Muela Aparicio andreak alkatearen aurrean zinpean aitortzen du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarteak ez daudela sartuta 38/2003 Legeak aurreikusitako debekuzasetan (2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra), ez eta Administrazio Publikoarekin hitzartzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ere; eta horren ondoren, bi aldeek elkarri behartzeko gaitasuna aitortuta,

### HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

1. Errealitate bat da Bergarako udalerrian katuen koloniak daudela udalerriko hainbat tokitan.
2. "KatuZo Bergara" elkartearen helburuetako bat animaliak defendatzea eta babestea da, eta jasotako animaliei osasun- eta albaitaritza-laguntza ematea, beharrezkoa izanez gero.

Estatutuetan adierazten da, halaber, helburu horiek lortzeko, besteak beste, honako jarduerak hauek egingo direla:

- Kalean bizi diren edo abandonatuta dauden animaliak jaso, esterilizatu eta askatu.
- Kontzientziazio-lana egin, animalien ongizatea defendatzeko eta animaliak ez abandonatzeko, beharrezkoak ez diren gurutzaketak ez egiteko eta animaliak edukitzeko arduraz edukitzeko.
- Ikasleen artean ikastaroak eta hitzaldiak sustatu, animalien babespenaren balioak hedatzeko eta txikienen elkartasuna lantzeko, eskola, ikastetxe edo hezkuntza-zentro ezberdinetan.

3. KatuZo Bergarak, udalerriko hainbat auzotan katu-koloniak daudela eta horiek behar bezala kudeatu behar direla ikusita, ekimen bat bultzatu du, baina ekimen hau garatzeko, onartua izateko eta arrakasta izateko, elkarteak osatzen duten boluntarioen ahalegin handiaz gain, Bergarako Udalaren laguntza ere behar da. Horrenbestez, eta horretarako, udalari proposamen bat aurkeztu dio.

4. Bergarako Udala sentsibilizatuta dago udalerriko katu-kolonien egoerarekiko.



Bi aldeek uste dute komenigarria dela udalerrri honetan goian adierazitako helburuak lortzeko jarduerak egitea eta, horrenbestez, honako klausula hauek dituen hitzarmena adostu dute:

## KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da bi aldeen betebeharrak arautzea, udalerrian dauden katu-koloniak eta horiei lotutako arazoak kontrolatzeko helburuarekin. Horretarako, KatuZo elkarteak katu-koloniak identifikatu, kontrolatu eta elikatuko ditu, eta Bergarako Udalak horretan lagunduko du, hitzarmen honetako hurrengo puntuetan jasotako baldintzetan.

BIGARRENA.- Elkarateak plan bat egingo du 2022. eta 2023. urteetarako. Plan horretan, lehenengo fasean, udalerriko mapa bat egingo da eta bertan jasoko dira katu-koloniak dauden eremuak eta horien osaera jasoko duen gutxi gorabeherako errolda. Udalak, bere aldetik, koloniak aurkitzen lagunduko du, eta Udaltzaingoaren esku dagoen informazioa emango du. Horretarako, jendaurrean zabalduko da –ohiko bitartekoen bidez– hitzarmena sinatu dela eta metodoaren aplikazioa zein den, eta herritarren laguntza eskatuko da.

Plan horretan, halaber, egin nahi diren jarduerak eta horiek gauzatzeko modua jasoko dira, baita aurrekontua ere, eta Udalari aurkeztuko zaio onar dezan.

Udalak hamar (10) eguneko epean aztertuko du plana eta erabakiko du elkarlanean arituko den edo ez; baiezkoa erabakitzen badu, elkarteari plana gauzatzeko emango dion dirulaguntza zenbatekoa izango den erabakiko du. 2022ko eta 2023ko dirulaguntzak Alkatearen Dekretu bidez onartuko dira, 2022ko abenduan.

Udalaren dirulaguntza honako gastu hauetarako erabiliko da: albaitariaren ordainsariak ordaintzeko eta janaria erosteko (pentsu lehorra), etxola eta janlekuak eraikitzeko materiala erosteko, kaiola-tranpak erosteko, errausketak egiteko, propaganda egiteko, eta orokorrean katu-koloniak zaintzeko Udal Batzarrarekin adostutako jarduera guztiak egiteko.

HIRUGARRENA.- KatuZo elkarteak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Plana gauzatzea.
- Katuen populazioa kudeatzea eta kontrolatzea. Metodo hau erabiliko da: jaso, esterilizatu eta askatu. Askatu ondoren gainbegiratzea.
- Adopzio arduratsua sustatzea.
- Katu-koloniak elikatzeko eta babesteko espazioa ezartzea, eta elkarteko kide boluntarioen bitartez elikagaiak ematea.

Formazio-kanpainak egitea, Udalaren laguntza izanda kanpaina horiek hedatzeko eta zabaltzeko.





Begarako  
Udala

- Gutxienez euskara erabiltzea ekitaldietan eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.
- Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena gaztelerazkoaren aurretik eginez.
- Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak hizkuntzaren aldetik zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.
- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).
- Diruz lagundutako ekintzen publizitatean (kartelak, esku-programak...), KatuZo elkarteak Bergarako Udalaren laguntza duela adieraztea.
- Aplikagarri zaizkion betebeharrak legalak betetzea. Elkarteak betebeharrak horiek beteko ez balitu, horrek ez dio ekarriko inolako erantzukizunik Bergarako Udalari.
- Udalari jakinaraztea elkarteko zuzendaritza-organismoetan egindako aldaketak, gertatzen direnetik gehienez ere hilabete bateko epean.
- Urte bakoitzeko urriaren 15a baino lehen, hurrengo urterako plana aurkeztea. Udalak, Alkatearen Dekretu bidez, 30 eguneko epean ebatziko du eman beharreko dirulaguntza, eta gastua dirulaguntza ematen den urteko aurrekontuari egotziko zaio. Ondorioz, 2024rako plana 2023ko urriaren 15a baino lehen aurkeztuko da, eta emandako dirulaguntza 2024ko aurrekontuari egotziko zaio, eta horrela hurrenez hurren, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

LAUGARRENA.- Bergarako Udalak bere gain konpromisoa hartzen du emandako dirulaguntza honela ordaintzeko:

1.- Dirulaguntzaren lehenengo zatia (emandako dirulaguntzaren % 60), justifikatu beharreko aurrerakin gisa, onuradunak dirulaguntza onartu ondoren eta gehienez ere hilabeteko epean –dagokion ebazpena hartzen den egunetik zenbatzen hasita–.

Hala ere, 2024rako dirulaguntzaren lehenengo zatia 2024ko otsaila baino lehen ordainduko da, eta modu berean jokatu da hurrengo urteetan, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean.

Dirulaguntza onartutzat joko da baldin eta elkarteak ebazpenaren jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean uko egin diola jakinarazten ez badu .



2.- Dirulaguntzaren bigarren zatia kobratzeko, elkarteak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu plan bakoitzari dagokion urte naturalaren hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen:

- Diruz lagundutako ekintzen memoria.
- Eraitza ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jasoz, eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan ere zehaztu beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitortpena gehituko zaio, elkarteko ordezkariak sinatuta.
- Faktura, agiri edo erreziboen kopiak eta horien ordainketa-agirien kopiak.
- Jasotako beste dirulaguntzen agiriak edo, beste dirulaguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitortpena.

Elkarteak, aintzat hartzeko moduko arrazoirik aurkeztu gabe, ez baditu programatutako jarduerak edo hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak betetzen –zati batean bada ere–, Udalak erabaki ahal izango du elkarteari jasotzeko geratzen zaion dirulaguntza edo horren zati bat ez ordaintzea, eta baita jadanik kobratuta duen dirua (guztia edo zati bat) itzularaztea ere.

Erabaki hau hartu aurretik entzunaldirako epea emango zaio interesatuari.

Bestalde, elkarteak justifikatutako gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa balitz, udalak eskatu ahal izango du dirulaguntzaren zati bat itzultzea; baina gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, udalak ez du dirulaguntza berririk emango.

Udalak, halaber, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Elkarteak jardungo duen eremuak hobeto ezagutarazteko udal-abisuen bidez sendotzea. Bergarako udalerrian jardungo den katu-kolonia bakoitzean informazio-kartel bat jarriko da, non adieraziko den kudeatutako kolonia kontrolatua dela, ohartarazita debekatuta dagoela animaliei jaten ematea, baimendutako pertsonak izan ezik. Kartelean Bergarako Udalaren eta KatuZo Bergara elkartearen logotipoak agertuko dira (eta etorkizunean proiektuarekin bat egin dezakeen beste edozeinena)
- Koloniak zaintzeaz eta elikatzeaz arduratzen diren boluntarioei identifikazio-txartelak ematea. Elikadura hori identifikatutako pertsonen esku geratuko da; pertsona horiek konpromisoa hartuko dute katuen elikadura kolonia bakoitzean ezartzen diren elikadura-puntuetan egiteko eta behar bezala aurrera eramateko, horrela bizikidetzarazoak saihestuz.
- Txartel horiek udalak emango dizkie elkarteak aldeztu aurretik baimendu dituen eta hala egiaztatzen duten pertsonak.
- Elkartearen esku lokal egoki bat jartzea, hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzeko.



BOSGARRENA.- Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein dirulaguntza ere jaso daiteke, eta Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da. Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (udalarenak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere gastua baino altuagoa izan.

SEIGARRENA.- Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua murriztea.

ZAZPIGARRENA.- Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, horrela badagokio, kendu egingo da, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Hitzarmenean eta onartutako gauzatze-planetan jasotako baldintzak ez betetzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honetan dirulaguntzaren inguruan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa; lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Bergarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: horretarako izendatutako zinegotzi batek, Obra eta Zerbitzuetako buruak eta Udaltzaingoko buruak, edo zerbitzu horietako kideek, planaren jarraipena egiteko eskuordetzen dituztenean.

Batzorde hori, hasieran, hitzarmena sinatutakoan 15 eguneko epean bilduko da, eta ondoren, erabakitzen duten aldizkakotasunarekin, eta, nolanahi ere, gutxienez sei hilean behin.

HAMARGARRENA.- Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharrak edozein beteko ez balu, beste aldeak hitzarmena hautsi ahal izango luke eta kalte-ordainak eskatu.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta indarrean egongo da sinatzen denetik 2026ko abenduaren 31ra arte. Hala ere, aldeetako edozeinek amaitutzat jo ahal izango du hitzarmen hau urte natural bakoitzaren amaieran, beste aldeari bi (2) hilabete lehenago jakinarazita.



Eta adostasun-gisa, parte-hartzaileek agiri hau hirukoiztuta sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean, eta nik, Idazkariak, honen fede ematen dut.

Izpta: M<sup>a</sup> Carmen Muela Aparicio andrea  
KATUZO BERGARA

Izpta: Gorka Artola Alberdi jauna  
BERGARAKO ALKATEA



Izpta: M<sup>a</sup> Concepción Ugalde Izeta andrea  
UDAL IDAZKARIA